

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Elementu ukigarriak eta ukiezinak behar dira proiektua aurrera eramateko, hainbat baliabide motatan antolatuta. Baliabide fisikoetan, ordenagailuak, mugikor-testerako gailuak eta bulego fisikoa daude, agian bulego fisikoa ez da guztiz beharrezko etxean lan egiteko aukera dagoeko. Baliabide intelektualetan, aplikazioaren kodea, marka, diseinuak, teknologia (geolokalizazioa, ordainketa-sistemak) eta jabetza intelektuala sartzen dira. Giza baliabideetan, garatzaileak (backend, frontend, Android/iOS), diseinatzaileak, laguntza teknikoa eta aholkularitza legala behar dira. Finantza-baliabideei dagokienez, hasierako garapen-kostuetarako eta ondorengo mantentzerako kapitala, marketin-gastuak, hodei-zerbitzuak eta langileen soldatak finantzatu behar dira. Diputazioari saltzen badiogu produktua beraiek izango dira finantzatuko dutenak.

Hauek laburtuta:

- Baliabide fisikoak: ordenagailuak, mugikorrak, bulegoa(agian).
- Baliabide intelektualak: kodea, marka eta logoa, teknologia, jabetza intelektuala.
- Giza baliabideak: garatzaileak, diseinatzaileak, laguntza bezeroei, aholkulari legalak.
- Finantza-baliabideak: garapena finantzatzeko kapitala, mantentze-kostuak, hodei-zerbitzuak, publizitatea, soldatak.